



AKTEA

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU

BATZARRA

(2012-05-21/17)

Bilkurea:	Ohikoa
Datea:	2012-05-21
Lekua:	Udaletxeko Batzar Gela
Hasiera-ordua:	09:30
Amaiera-ordua:	10:00
Bertaratuak Lehendakaria:	Idurre Bideguren Gabantxo
Batzordekideak:	Josu Imanol Unanue Astoreka Juan Karlos Goienetxea Beitia Irene Ormaetxea Legarreta Juan Carlos Agirre Santa Maria Gaizka Gabantxo Zabala
Idazkaria:	Karmele Muñoa Arrigain
Bertaratu ez diranak	

Aztergaiak

1. Aurreko aktea irakurri eta onestea.
2. Arresi kalea 42an fruta dendea ipinteko Maria Carmen Bilbao Ormaza andreak egindako jarduera lizentzia eskaria.
3. Aritzatxuko kantinearen ustiaketea esleitzea.
4. Tokiko Gobernu Batzarreko fakturak onartzea.
5. Behargintzako formazino aholkularitza zerbitzuko fakturea.
6. Valora programearen kudeaketako fakturea.
7. Aita Guria baleontziaren 2012ko aseguru polizearen gastua.
8. Ortube itsasontziaren 2012ko aseguru polizearen gastua.
9. E-informa datu baserako 2012ko harpidetzaren gastua onartzea eta xedatzea, eta lehen fakturea agintzea.
10. Ricoh markako fotokopiagailuen urteko mantentzea kontratatuko gastua onartzea eta xedatzea, eta lehen fakturea agintzea.
11. Erosketa Saileko fakturak onartzea.
12. Ondasunen poliza osagarriaren gastua onartzea.
13. Mendiluz udal hilerriko Gurutze kalea 14ko hilobiaren ganeko hilobi eskubidearen titularra aldatzea.
14. Udalaren Kirol Patronatuaren ikastaroetarako hizkuntza plangintzea, 2012-2016.
15. Kirol Patronatuaren diru-laguntza deialdietako balorazino erispideetan hizkuntza erispideak ezartea.
16. Jai egitarauko artikuluen hizkuntza erabilerea.
17. Alkatetzearen dekretuak.
18. Eskariak eta itaunak.

1.- AURREKO AKTEA IRAKURRI ETA ONESTEA.

Lehendakariak hasikerea emon deutso batzarrari eta, jarduneko idazkariak 2012ko maiatzaren 14ko 16/2012 aktea irakurri ostean, batzordekide danen adostasunagaz, zuzenketa honeek egitea adostu dabe, eta holan geratuko da:

***3.- ARRANOTEGI AUZOKO JAIK OSPATZEKO DIRU-LAGUNTZEA.**

Xedea

2012. urteko Arranotegi auzoko jaiak ospatzeko diru-laguntza eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: Datorren maiatzaren 15ean, San Isidro eguna dala-eta, Arranotegi auzoko alkatea dan Javier Bilbao Penades jaunak, ondoren aitatzen diran ekintzak antolatzeko 6.717,00 eurotako diru-laguntzea eskatu dau.

Egitarauaren laburpena:

Maiatzak 20: Luntxa eta trikitrixa

Maiatzak 19, 20 eta 22an: Asto probak. Puntuagarriak.

Bagilak 1, 2, 3, 4 eta 5ean. Idi Probak. Puntuagarriak.

Bigarrena: 2012ko maiatzaren 3ko Osoko Bilkurean onartu ziran auzoetako jaiak sustatzeko diru-laguntzak arautuko dauzan oinarri bereziak. 2012. urterako auzo bakotxari 5.000,00 €ko (gehieneko kopurua) diru-laguntzea emotea proposau da.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Arranotegi auzoko jaiak ospatzeko, 5.000,00 euroko diru-laguntzea emotea auzo alkatea dan Javier Bilbao Penades jaunari.

BIGARRENA: Oinarri bereziek azaltzen daben lez, eta jaiak amaitu eta gero, justifikanteak eta gastuaren justifikazio zehatza aurkeztu beharko dira udal honetan.

HIRUGARRENA: Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauz diru-laguntzearen jasotzaileak.

*Idazkari andreak, erabagia ez dala legezkoa dino oinarriak ez diralako argitaratu, nahiz eta Osoko Bilkureak onartu izan.

***18.- ORDEZKAPEN KONTRATAZINOEN ERISPIDEAK.**

Xedea

Ordezkapen kontratazinoen erispideak.

Aurrekariak

Lehenengoa: Udala kontzientea da langileria nahitaezko baliabidea dala eta langileak dirala udalak daukan kapital nagusia herritarren eskariak eta beharrianak modu eraginkor baten erantzuteko eta asetzeko. Bestalde, bizitzen ari garan egoereak aurrekontu murrizketak burutzerara behartzen gaitu eta horrez gain, legeak be hainbat murrizketa ezarten deusku, beste batzuen artean, aldi baterako kontratazinoak egiterakoan.

Bigarrena: Egoera larri honi erantzun ahal izateko, nahitaezkoa da zerbitzuak berrantolatzea, udalak herritarrei eskaintzen deuten zerbitzuen arrazoizko erabilera eginez, beti be, herritarren eskaerei erantzun egokia emonez.

Argudioak

Lehenengoa: 20/2011 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, zerga eta finantza arloko premiazko neurriei buruzkoak, bere 3. artikuluan, honako hau adierazoten dau:

“Dos. Durante el año 2012 no se procederá a la contratación de personal temporal, ni al nombramiento de personal estatutario temporal o de funcionarios interinos salvo en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables que se restringirán a los sectores, funciones y categorías profesionales que se consideren prioritarios o que afecten al funcionamiento de los servicios públicos esenciales.”

Bigarrena: Aitatutako artikuluan ezarritakoaren arabera, ez da aldi baterako langileen kontratazinorik edo bitarteko funtzionarioen izendapenik egingo salbuespenezko kasuetan eta premiatasunezko beharrianak beteteko izan ezik, beti be, lehentasunezko arloetan.

Hirugarrena: Aurreko guztia kontuan izanda, udalak ez dau aldi baterako langilerik kontratauko edo bitarteko funtzionarioen izentauko, salbuespenezko kasuetan izan ezik, hau da, lehentasunezko arloetan gertautako premiatasunezko beharrianetan eta zerbitzu esentzialen funtzionamentuan eragina daukanean.

Laugarrena: Ondorioz, eta egoera larri honi aurre egin ahal izateko, barriro eskatzen dogu udal langile guztien lankidetzeta eta laguntzea, danon artean herritarren beharrianei erantzuna emoteko eta, ahal den heinean, kalidadezko zerbitzua emoten jarraitzeko.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Kontratazino edo funtzionario izendapenik ez egitea, ez bada salbuespenezko kasua dala, hau da, lehentasunezko arloetan gertautako premiatasunezko beharrianetan eta zerbitzu esentzialen funtzionamentuan eragina dauenean.

BIGARRENA: Zerbitzu bakoxtaren berrantolaketea modu egokienean burutu ahal izateko, sail eta zerbitzu guztiei eskatzen deutsegu oporren planifikazioa lehenbailehen Langileria Sailean aurkeztea.

HIRUGARRENA: Erabagi honen barri sail eta zerbitzu guztiei jakinarazoteaz gain, arduradun bakoxtak, bere sail edo zerbitzuko langileei ezagutarazo beharko deutse jagokozan bilerak eginez.

***26.- ESKARIAK ETA ITAUNAK.**

Batzordekideek ez dabe ezelango eskari eta itaunik aurkeztu.

2.- ARRESI KALEA 42-AN FRUTA DENDEA IPINTEKO MARIA CARMEN BILBAO ORMAZA ANDREAK EGINDAKO JARDUERA LIZENTZIA ESKARIA.

Xedea

Arresi kalea 42an fruta dendea ipinteko M. Carmen Bilbao Ormaza andreak egindako jarduera lizentzia eskaria.

Aurrekariak

Lehenengoa: M. Carmen Bilbao Ormaza andreak fruta dendea ipinteko eskaria aurkeztu eban 2012ko apirilaren 20an.

Bigarrena: Ingurumen teknikariak 2012ko apirilaren 26an txostena egin eban, eta bete beharreko neurri zuzentzaileak adierazo ebazan.

Argudioak

Martiaren 9ko 165/1999 Dekretuak adierazotakoaren arabera, KALTEBAKOTZAT hartu behar da eskatutako jarduera hori.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Jarduerea ipinteko lizentzia emotea interesdunari eta jagokozan tasak kitatzea, eta jakinarazotea, hogeta hamar (30) eguneko epean, Ingurumen teknikariaren txostenaren fotokopian agertzen diran neurri zuzentzaileak bete behar dauzala.

BIGARRENA: Interesdunari ohartarazotea neurri zuzentzaileak hartu ostean, jarduerea zabaldu ahal izateko, jakinarazpenari erantsitako zinpeko autorpena aurkeztu beharko dauela udal honen aurrean, eta autorpen hori benetakoa izan behar dala. Behin autorpen hori aurkeztuta, jarduerea zabaltzeko erria izango dau, Ingurumen teknikariak egin leikezan ikuskapenen kalte barik. Autorpena benetakoa ez izateak erantzukizun administratibo edo penalak sortu leikezala be, ohartarazoten jako interesdunari.

HIRUGARRENA: Interesdunari jakinarazotea edozein moetatako errotulurik euskeraz ipini ezkeru, udalak errotuluaren kostuaren % 75era arteko diru-laguntzea emongo dauela. Horretarako, interesdunak eskariagaz batera, idatziko dan testuaren zirriborroa aurkeztuko dau errotulua ipini aurretik, Euskera sailak ondo idatzita dagoala ziurtatu ahal izateko. Bestalde, tasea ordaintzea bajagoko, % 75eko hobaria izango dau.

3.- ARITZATXUKO KANTINEAREN USTIAKETEА ESLEITZEA.

Xedea

Aritzatxuko kantinearen ustiaketea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko apirilaren 18an izandako Tokiko Gobernu Batzarrean, Aritzatxuko kantineа ustiatzeko baldintza-agiriak onartu ziran.

Bigarrena: Deialdia zabaldu ondoren, hurrengo eskariak aurkeztu ziran:

- Iker Dominguez Basterretxea
- Ander Bilbao Loyola
- Xabier Ortuzar Butron
- Igor Zulueta Martin
- Leire Urkidi Oñate

Hirugarrena: 2012ko maiatzaren 10ean zozketea egin da esleipenduna aukeratzeko. Zozketaren ondorioz ANDER BILBAO LOYOLA jaunari jagoko esleipena. Behar bada, gainontzeko interesatuak be zozkatu dira, ordezkapen kasua gertatuko balitz, hurrengo emaitzeagaz:

- 1.a – Igor Zulueta Martin
- 1.a – Iker Dominguez Basterretxea
- 3.a – Xabier Ortuzar Butron
- 4.a – Leire Urkidi Oñate

Erabagia

Goian aitaturko guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Aritzatxuko kantinearen ustiaketea, 2012ko udaldirako, ANDER BILBAO LOYOLA jaunari esleitzea.

4.- TOKIKO GOBERNU BATZARREKO FAKTURAK ONARTZEA.

Ondoren zerrendatzen diran fakturak, aho batez, onartzea erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

FAKTURA ZEBK.	KONTZEPTUA	SARRERA DATA	ZENBATEKOA
.12GK00057	CESPA-Apirila kartoi eta paper bilketea	.2012-05-03	2.338,78
.3009/12	GUGAR-Apirila berdeguneen garbiketea	.2012-04-30	813,91
.23549	ADYPA-Langileen erropak	.2012-05-03	671,22
.190-P	BERMIOPOST-Karta banaketea,bandoak,isunak	.2012-05-03	4.854,53
.A/62	EXC. TUÑEZ SANCHEZ-Bermibusa	.2012-05-03	8.266,68
.V680	TEINSOFT-Zezeilako extrea	.2012-04-25	2.971,90
.V681	TEINSOFT-Martiko extrea	.2012-04-25	6.514,17
.V679	TEINSOFT-Urtarrileko extrea	.2012-04-25	1.711,09
.12/0162	EKAIN-Apirileko aholkularitza	.2012-05-04	1.019,52
.71204058	SERCOIN-Maiatzeko estintoreen mantentzea	.2012-05-07	1.741,15
.00-003.943	ELHUYAR-"Geurien be bai" egitasmoaren 2012ko apirila	.2012-05-07	4.623,12
.9721	BIT@BIT INFORMATIKA-Ikastaroa fagor heindenhain	.2012-05-09	4.000,00
.TB2012/295	INBISA-Lorategi eta berdeguneak mantentzea martia	.2012-03-30	12.771,77
.TB2012/160	INBISA-Lorategi eta berdeguneak mantentzea zezeila	.2012-03-22	13.148,06
.9712	BIT@BIT INFORMATIKA-Apirileko informatika zerbitzua	.2012-05-07	1.803,04
.62	GT3SOLUCIONES-SWAL urteko mantentzea	.2012-05-07	607,03
.52807	TECUNI-Martiko eraikinen mantentzea	.2012-04-12	1.739,37
.52611	TECUNI-Zezeileko argien mantentzea	.2012-03-16	6.134,29
.52612	TECUNI-Zezeileko eraikinen mantentzea	.2012-03-16	2.087,16
.52394	TECUNI-Urtarrileko argien mantentzea	.2012-02-23	6.524,48
.52395	TECUNI-Urtarrileko eraikinen mantentzea	.2012-02-23	1.735,39
.12193	KLIBERM-Mantentzea	.2012-04-10	2.265,07
.46/2012	TRANSPORTES GRUA J.RAMON-Bidaiak	.2012-03-15	1.102,40
.63/2012	TRANSPORTES GRUA J.RAMON-Bidaiak	.2012-04-11	1.315,33
.905/20/12	AGUAGEST-2012ko 1.goko hiruhilabetea	.2012-04-16	4.904,93
.034931-2012	GARBIKER-Martiko tratamantua	.2012-04-19	31.167,33
.52808	TECUNI-Martiko argien mantentzea	.2012-04-12	6.218,80
	GUZTIRA		133.050,52

5.- BEHARGINTZAKO FORMAZINO AHOALKULARITZA ZERBITZUKO FAKTUREA.

Xedea

Behargintzako formazino aholkularitza zerbitzuko faktura.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko urtarrilaren 31ko 92 data eta zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez, Behargintzako formazinoko aholkularitza zerbitzu kontratua

esleitu jakon DAITEKE CAREERS & JOBS SL enpreseari, 150.000,00€ tan (BEZ kanpo). Jagokon kontratua sinatu zan zezeilaren 2an.

Bigarrena: 2012. urterako gastua 34.375,00€ gehi BEZari jagokozan 6.187,50 € da. Danera. 40.562,50 €

Hirugarrena: 2012ko apirilaren 13ko 5259 sarrera erregistro data eta zenbakiagaz, DAITEKE enpreseak 007/032012 zenbakidun fakturea aurkeztu dau, zezeilari jagokona. Danera: 3.687,50 €

Argudioak.

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honeri aurre egiteko, ondorengo partidetan:

01000-32210-227.99.28 "Aholkularitza zerbitzua" (36.000,00€) eta 01000-32210-226.99.42 "Ostalariak eta merkatariak suspertzeko" (4.562,50€)

Bigarrena: Aurkeztutako fakturea bat dator esleitutako prezioagaz.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 2012. urterako gastua onartzea eta xedatzea. Danera, 40.562,50€

BIGARRENA: Zezeilari jagokon 007/032012 zenbakidun fakturea onartzea. Danera: 3.687,50€

6.- VALORA PROGRAMEAREN KUDEAKETAKO FAKTUREA.

Xedea

Valora programearen kudeaketako fakturea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2012ko zezeilaren 6ko data eta 36. zenbakidun Tokiko Gobernu Batzarreko erabagi bidez, Behargintzako Valora Europar egitasmoa kudeatzeko zerbitzu kontratua esleitu jakon DAITEKE CAREERS & JOBS SL enpreseari, 74.000,00€ tan (BEZ kanpo). Jagokon kontratua sinatu zan zezeilaren 13ko dataz.

Bigarrena: 2012. urterako gastua 37.000,00€ gehi BEZ ari jagokozan 5.660,00€ da. Danera. 43.660,00€

Hirugarrena: 2012ko martiaren 22ko 4100 sarrera erregistro data eta zenbakiagaz, DAITEKE enpreseak 006/032012 zenbakidun fakturea aurkeztu dau, 2012. urte osoari jagokona. Danera: 43.660,00€

Argudioak

Lehenengoa: Kontsignazino nahikoa dago gastu honeri aurre egiteko, ondorengo partidetan;
01000-32210-227.99.03 “Valora europar proiektua kudeatzeko zerbitzua” (38.000,00€) eta 01000-32210-226.99.29 “Valora ekintzak” (5.660,00€).

Bigarrena: Aurkeztutako fakturea bat dator esleitutako prezioagaz.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 2012. urterako gastua onartzea eta xedatzea. Danera: 43.660,00€

BIGARRENA: 2012. urteari jagokon 006/032012 zenbakidun fakturea onartzea. Danera: 43.660,00€

7.- AITA GURIA BALEONTZIAREN 2012-KO ASEGURU POLIZEAREN GASTUA.

Xedea

AON Gil y Carvajal udal artekariak aurkeztutako aseguru polizearen gastua.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: AON Gil y Carvajal udal artekariari ordaintzeko 34.719,31 €-ko gastua onartzea, xedatzea eta agintzea:

AON kargua	Polizea	Zerena	Primea
Erref. 1010000000122997	MAPFRE – 0611274810636	<i>Aita Guria</i> baleontzia	34.719,31 €

8.- ORTUBE ITSASONTZIAREN 2012-KO ASEGURU POLIZEAREN GASTUA.

Xedea

AON Gil y Carvajal udal artekariak aurkeztutako aseguru polizearen gastua

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: AON Gil y Carvajal udal artekariari ordaintzeko 5.254,43 €-ko gastua onartzea, xedatzea eta agintzea:

AON kargua	Polizea	Zerena	Primea
Erref. 1010000000122981	MAPFRE – 0611274810128	Ortube itsasontzia	5.254,43 €

9.- E-INFORMA DATU BASERAKO 2012-KO HARPIDETZEAREN GASTUA ONARTZEA ETA XEDATZEA, ETA LEHEN FAKTUREA AGINTZEA.

Planteatutako gaia

E-informa datu baserako 2012 harpidetzea.

Argudioak

Lehenengoa: 2010ean Errenta Saitetik e-informa web datu baserako harpidetzea bideratzeko eskatu eben.

Bigarrena: 2012. urtean datu base horregaz jarraitzea egoki ikusi da.

Enpresa: INFORMA D&B SA

CIF: A80192727

Mota: PLAN 30

Ezaugarriak: Espedientean kopia bat.

Kontratu zbk. 12004676

Harpidetza kuota: 29€/hileroko. Sei hileroko fakturazinoa.

Gainontzeko zerbitzuak eta txostenen eskariak: www.einforma.com. Hileroko fakturazinoa zerbitzuko.

Hirugarrena: Zemendiaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu dauen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 138.3 artikuluan xedatuta dagoz hornidura kontratu txikien mugak, hau da, 18.000,00 €-rainokoak BEZ BARIK, zuzeneko esleipen bidez gauzatu daitekezala. Xedapen hori eta gastu honen zenbatekoa kontuan izanda, legezkoa da zuzeneko esleipena egitea.

Laugarrena: Esleipendunari jakinarazotea udalagaz izango dauzan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idazkirik aurkeztu behar dauenean euskeraz aurkeztu beharko dauzala.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: 2012. urtean e-informa datu basearen harpidetzea mantentzea, INFORMA D&B SA enpreseari jagokon gastua onartzea eta xedatzea.

Kontratu Mota: PLAN 30

Kontratu zbk: 1204676

Ordaintzeko epea: DOMIZILIAZINOA ****_****_**_*****2847 kontu korrontean.

Gastu osoa: Aurreikuspena 475,00 BEZ barru dala.

Garraio kosturik: Ez

BIGARRENA: INFORMA D&B SA enpreseak lehen sei hilabeteari jagokon 2200030655 zenbakidun fakturea onartzea. Danera: 205,32€ BEZ %18 barru.

10.- RICOH MARKAKO FOTOKOPIAGAILUEN URTEKO MANTENTZEA KONTRATETAKO GASTUA ONARTZEA ETA XEDATZEA, ETA LEHEN FAKTUREA AGINTZEA.

Planteatutako gaia

Garantia amaitu jaken fotokopiagailuei, urtebeteko mantentze kontratua egitea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 1997an Tokiko Gobernu Batzarrak udal fotokopiagailuak garantia amaitzerakoan aldatzeko erabagia hartu eban.

Bigarrena: Ez dago kontsignazinerik fotokopiagailuak aldatzeko, ondorioz urtebeteko mantentze kontratuak egitea ezinbestekoa da.

Hirugarrena: Igaz, Informatika Sailak egindako azterketearen arabera, aldaketarako lehentasuna sailkatu dabe, azken bost urteetan izandako erabilera mailak eta makinaren egoera kontuan izan ondoren. Horretan, 233-EROS/11 eta 328-EROS/11 kontratazino espedienteetan agertzen dira zehaztasunak.

Laugarrena: 2011ko maiatzaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak 38. erabagia hartu eban mantentze kontratuak egiteko apirilean garantia amaitzen jaken makinei, eta 2011ko garagarriaren 18ko batzarrean barriz, 27. erabagi bidez, bagilean garantia amaitzen eben makinaren garantia. Kostua: 1.003,00€ eta 1.239,00€ hurrenez hurren.

Bosgarrena: LANKIDEGO enpresea mantentze lanakaz jarraitzeko prest agertu da eta apirilean amaitzen dan kontratuaren jarraipenari jagokon fakturea aurkeztu dau. FRA.ZBK 5191. Danera: 1.029,40€ BEZ%18 barru dala. Igoerea: %2,6.

Argudioak

Lehenengoa: Fotokopiagailuak ezin diranez barriztau, urtebeteko mantentze kontratua egitea ezinbestekoa da, funtzionamentuan mantentzeko.

Bigarrena: Kontsignazino nahikoa dago urtebeteko mantentze kontratua egiteko.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: LANKIDEGO enpreseari 2012-52 mantentze kontratu txikia esleitzea.

Xedea: RICOH markako fotokopiagailuen mantentze kontratu txikia.

Kontratu epea: Urtebete

Kontratua zati bitan tramitauko da; lehen zatia apirileko taldea eta bigarren zatia bagileko fotokopiagailu taldea.

Ordaintzeko epea: Ohikoa.

Gastu osoa: 2.300,30€

BIGARRENA: LANKIDEGO enpreseak, apirilean fotokopiagailuen mantentzea luzatzeari jagokon 5.191. fakturea onartzea. Danera: 1.029,40 €.

11.- EROSKETA SAILEKO FAKTURAK ONARTZEA.

Ondoren zerrendatzen diran fakturak, aho batez, onartzea erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

ESPEDIENTEA	FRA Zbk	KONTZEPTUA	ZENBAT
203-EROS/12	2012/001105	TOURLINE EXPRESS.- mezularitza paketeria banaketa zerbitzua. APIRILA-2012-15 KONTRATUA	320,53
47-KUL/12	2012/00118	ONMOTIVA.- kultura jai kirol egitarua. Maiatzekoa. 2012-48 kontratua	1.657,90
231-BIL/12	C12-10141-R	MONTTE.- fotokopiagailu paper hornidurea. 2012-01 kontratua	139,83
235-KUL/12	1510	ART PRINT.- inprenta lan txikiak Apirilekoak. 2012-13 kontratua	669,19
254-BIL/12	1525	ART PRINT.- zigilu automatikoetako tintak.	81,23
	195/12	ZOSMAMEDIA.- iragarkiak argitaratzeko zerbitzua. Apirilekoak. 2011-10BIS kontratua	3.215,45
220-HIL/12	127	LLONA INPRIMATEGIA.- hilerriko lan parteentzako taloitegiak	107,38
177-ZER/12	CD20120000131	LAPPSET.- Umeen jokoetako ordezkoko piezak erostea.	7.544,98
18-KUL/12	112/2012	AGM SOFT CONSULTING.- Kultur.net aplikazioaren mantentzea MAIATZA. 2012-33 kontratua	134,13
84-ID/12	20,121,576	DAPP PUBLICACIONES JURIDICAS.- El consultor del secretario BD-harpidetzea.	283,92
210-KALGAR/12	002 120117	SICAL.- errazmakinen zepiluak erostea	573,48
208-BRI/12	12NA/035472	BLINKER.- obretako materiala hornitzea	336,71
		DANERA	15.064,73

12.- ONDASUNEN POLIZA OSAGARRIAREN GASTUA ONARTZEA.

Xedea

Ondasunen poliza osagarriaren gastua onartzea.

Argudioak

Lehenengoa: Arrisku-askoren aseguru polizean Haur Eskolea eta Anasagasti tar Teodoro kalea 2 – beheko lokala ez egozala egiaztatu zan.

Bigarrena: 2012ko zezelaren 9an AON Gil Y Carvajal aseguru artekariari aseguru polizean sartzeari eskatu jakon datu honeek emonda:

- ▶ Higiezina: Haur Eskola
- Kokapena: Tonpoi bidea, 5A
- Osagaiak: Eraikina, kanpokaldea eta jolastokia.
- Balioa: 113.000,96 €

Erabilera: Hezkuntza

► Higiezina/kokapena: Anasagasti tar Teodoro kalea 2 –beheko lokala
Eraikinean daukan partizipazioa: %4,55
Erosketa balioa: 198.334,00 €
Erabilera: Morondoko aparkaleku publikorako pasua

Hirugarrena: Eskatutako altxari jagokon poliza osagarria aurkeztu dau AON Gil Y Carvajal aseguru artekariak.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrek:

BAKARRA: AON Gil y Carvajal artekariak aurkeztutako aseguru polizearen gastua onartzea, xedatzea eta agintzea:

AONen kargua	Polizea	Zerena	Primea
Erref. 10100000001435 79	MAPFRE 0720970093131	Ondasunen "arrisku- asko"ren 2012ko polizaren 3. osagarria	93,01

13.- MENDILUZ UDAL HILERRIKO GURUTZE KALEA 14-KO HILOBIAREN GANEKO HILOBI ESKUBIDEAREN TITULARRA ALDATZEA.

Planteatutako gaia

Bermeoko hilerriko Gurutze kalea 14ko hilobiaren gaineko hilobi eskubidearen titularra aldatzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 1981-01-10eko dataz, Iraunkor batzordeak Mendiluz Udal Hilerriko Gurutze kalea 14an kokatzen dan hilobia Ana Pagay Echevarria andreaki esleitu eutsen.

2012ko apirilaren 12an Ana Concepcion Ezkiaga Pagai andreak eskatzen dau Mendiluz hilerriko Gurutze kalea 14 zenbakidun hilobiaren ganeko hilobi eskubidea bere izenean ipintea.

Bigarrena: Gaur egun aitatutako hilobiarengan onuradun modura eskubidea daukien bakarrak titularraren seme-alabak dira, alaba bakar bat dagoalarik, Ana Concepcion Ezkiaga Pagai andrea.

Hirugarrena: 1981ko maiatzaren 21ean, Ana Pagay Echevarria andreak testamentua egiten dau, bertan bere ondasun guztien onuradun unibertsal moduan bere alabea dan Concepcion Ezkiaga Pagai andrea izentetan dauelarik.

Oinarri juridikoak

Bakarra: Bermeoko Udal Hilerriaren Ordenantzeak 49. artikuluan ondokoa zehazten dau:

49. artikulua

“Hobiratze eskubidearen titularra hiltzen danean, izendatutako onuradunak, testamentuan agertzen diran oinordekoak edota testamentu barik ere jagokenak, euren izenean aldatzera behartuta dagoz. Hilerri sailera etorriko dira horretarako Udaletxera, titulua edo titularitatea aldatzeko beharrezkoak diran beste frogagiri guztiekaz.”

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: Ana Concepcion Ezkiaga Pagai andreak egindako eskariari baiezkota emotea, Hilobien Erregistro Liburuan aldaketa hau jasoz.

14.- UDALAREN KIROL PATRONATUAREN IKASTAROETARAKO HIZKUNTZA PLANGINTZEA, 2012-2016.

Xedea

Udalaren Kirol Patronatuaren ikastaroetarako hizkuntza plangintzea, 2012-2016

Aurrekariak

Lehenengoa: Euskera Sailak *Geurien be bai* egitasmoa dauka martxan 2004tik hona, arlo sozioekonomikoan eta alkarteetan euskerearen erabilera areagotzeko. Egitasmo hori Elhuyar aholkularitzearen laguntzeagaz bideratzen da.

Bigarrena: 2009an Udalaren Kirol Patronatuak alkarteakaz izenpetzen dauzan hitzarmenen bitartez emoten diran ikastaroetan eragiteko lan egiten hasi zan. Harrezkero, alkarte, monitore, ikastaro eta erabiltzaileen diagnostikoa egin da, eta lan ekintza batzuk planteau edo proposau dira Euskera Siletik Udalaren Kirol Patronatuagaz alkarlanean.

Argudioak

Lehenengoa: Euskera Sailak Udalaren Kirol Patronatuan egindako diagnostikoaren arabera, besteak beste, honako ondorioak atara dira:

- Euskera ikastaroen presentzia txikia da

2009ko abuztuan batutako datuen arabera, amaitu barri zan ikasturtean, honakoa izan zan hizkuntzearen erabilera kiroldegiko ikastaroetan:

- Euskeraz:	%26
- Elebietan, batez be euskeraz:	%20
- Elebietan, batez be gaztelaniaz:	%40
- Gaztelaniaz:	%14

Azken ikasturteetako daturik ez badago be, eta egoereak hobera egin badau be, erreferentzia moduan baliagarriak izan daitezke azaldutako datuak.

- Monitoreek saioak euskeraz emoteko gaitasun handiagoa daukie, benetan egiten dana baino.
- Monitore askok trebakuntzea gaztelaniaz jaso dabe, eta gatx egiten jake ikastaroa euskeraz emotea.
- Umeen ikastaro batzuetan euskereak ez dauka presentziarik edo oso txikia da.
Sarri, erabiltzaileek gaztelaniarako jokerea daukie; gaztetxoek eta hirugarren adineko taldeek (“euskera hori” ez ei dabe ulertzen).
- Erabiltzaile gehienek euskeraz dakie edo ulertzen dabe.

Bigarrena: Udalaren Kirol Patronatuak administrazioa dan heinean, gizarte erantzukizun osoa dauka euskereagazko; antolatzen diran euskera ikastaroetan islatu behar da erantzukizun hori, are gehiago herri euskaldun batean egonda eta erabiltzaile kopurua handia izanda.

Hirugarrena: 2012ko urrian egindako datu bilketan erabiltzaileek emondako erantzunen arabera, erabiltzaileen %74k daki euskeraz, %7k ulertzen dau, %4k ez daki eta %14k ez dau erantzun.

Datu horreetatik abiatuta esan daiteke, Bermeoko kiroldegian ez dagoala eragozpen handirik euskeraz eskainiko diran ikastaro kopurua arian-arian areagotzeko. Prozesu hori ondo bideratzeko plangintza baten barruan egin behar da. Horregatik, egiten dan proposamenean helburu mailakatuak ezarten dira, lehentasunak be bai (umeei, gazteei eta 3. adinekoei zuzendutako ikastaroak) eta monitoreek zein erabiltzaileek izango daben hizkuntza gaitasuna kontuan hartzen da.

Laugarrena: Kirol Patronatuak berak hartu behar dau euskerea ikastaroen plangintzearen lidergoa, bera baita erantzukizun osoa daukana berak bideratzen dauzan ekintzetan. Plangintzea apliketean, garatzea eta jarraipenerako urratsak be berak egin behar dauz. Euskera Saila bidelaguna da eta baliabide bat da Udalaren Kirol Patronaturako. Alkarlana bermatu behar da.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: *Udalaren Kirol Patronatuaren ikastaroetarako hizkuntza plangintzea 2012-2016 onartzeko proposamena egitea Udalaren Kirol Patronatuari, bere gain hartzeko, eta 2012-13 ikasturtetik aurrera martxan ipinteko.*

BIGARRENA: Behin proposamena onartuta, proposatzen jako, Plangintza horren barri emotea, bai jakinarazpen ofizial bidez, zein aurrez aurreko komunikazioaren bidez honako honeei:

- Hitzarmenen bidez, kiroldegian ikastaroak eskaintzen dabezan alkarteei
- Kiroldegian ikastaroak emoten dabezan kirol monitoreei

HIRUGARRENA: Gogorarazotea Udalaren Kirol Patronatuari, gura izan ezker, Euskera Saila bidelagun eta baliabide izango dauela plangintzea aurrera eroateko.

15.- KIROL PATRONATUAREN DIRU-LAGUNTZEA. DEIALDIETAKO BALORAZINO ERISPIDEETAN HIZKUNTZA ERISPIDEAK EZARTEA.

Xedea

“Kirol taldeentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri bereziak” eta “Kirol taldeentzako eta bestelako persona fisiko edota juridikoentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri bereziak” (ekintza puntualak). Balorazino erispideetan hizkuntza erispideak ezartea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Kirol taldeentzako eta bestelako persona fisiko edota juridikoentzako diru-laguntza deialdiak egiten dira urtero. Diru-laguntza deialdi horreetan Euskerearen Erabilera arautzen dauen Udal Ordenantzeak zehazten dauenaren arabera, euskerearen erabilera arautzeko hizkuntza erispideak ezarten dira.

Bigarrena: Deialdi bietan hizkuntza erispideak ezarrita badagoz be, ez da hizkuntza tratamendua aintzat hartzen diru-laguntzak esleitzeko balorazino erispideetan; Kultura eta Hezkuntza Sailak bideratzen dauzan diru-laguntza deialdietan, esate baterako, bai.

Argudioak

Lehenengoa: Euskerearen Normalizaziorako Udal Ordenantzeak, Euskerea eta Udalaren Diru-laguntzei buruzko atalean honakoa dino 47. artikuluan:

“47. artikulua

Kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak.

1. Kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko orduan, hizkuntzaren irizpideak ondo finkatu beharko dira. Ondorioz, Bermeoko Udalarengandik diru-laguntzaren bat jasoten daben alkarte eta entitateek, pertsona fisiko nahiz entitate juridikoek, bere jardun subentzionatueta argitaratzen dabezan idatzi, iragarki, ohar eta gainontzekoak, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz idatzita emongo dabez ezagutzera. Hala ere, aurretik finkatu dan bezala, euskerari lehentasuna emonez, hau da, idatzizkoan hizkien tamaina bi aldiz handiagoa izango dalarik eta ahozkoan ere, erdaraz baten esaten bakoitzean, euskeraz hiru aldiz esanda.

Propaganda ere, bai ahozkoa, zein idatzizkoa, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz egin beharko dabe. Era berean, ospakizun konkretuetan; bozgorailu bidez emoten diran mezuak ere, euskeraz izan beharko dira, edo derrigorrean, euskeraz eta erdaraz emon beharko dabez”.

Hori holan dala, Kirol Patronatuaren diru-laguntza deialdietan ezarrita dagozan hizkuntza erispideak odenantzan oinarrituta dagoz.

Bigarrena: Udaleko Euskererearen Erabilera Planak diru-laguntzetarako zehaztutako helburua da udalarengandik diru-laguntzea jasoten daben talde eta alkarteek egiten dabezan ekintzetan euskerearen presentzia bermatzea.

II. Erabilera Planak aurrera begira hartu beharreko neurrietan honakoa zehazten dau:

“(…)diru-laguntza denean, hizkuntza irizpideak ondo zehaztea, betetzearen jarraipena egitea eta kasuren baten beteko ez balira jarraitu beharreko pausuak zeintzuk diren zehaztea. Hau guztiau argi jakinaraztea udalaren diru-laguntza jaso nahi duen orori.

Badaude urtero deialdia egiten ez diren diru-laguntza batzuk ere, esaterako futbol taldeari, arraun elkarteari, ... ematen

zaizkiena. Diru-laguntza hauetan ere, besteetan bezala hizkuntza irizpideak finkatu, bete eta jarraipena egin beharko zaie.”

Hirugarrena: Egokia da diru-laguntza araudi bietan, balorazino erispideen artean hizkuntzearen erabilera baloratzea. Halanda ze, honakoa proposetan da:

a) *“Kirol taldeentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietan”*: Balorazino erispideak atalean, 5. artikuluan, honako hau gehitzea:

“8.- Euskerearen erabilera”

b) *“Kirol taldeentzako eta bestelako persona fisiko edota juridikoentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietan”* (ekintza puntualak): 5. artikuluan.- Balorazino erispideak izenekoan, honako hau gehitzea:

8.- Euskerearen erabilera, bai maila idatzian, zein ahozkoan %15 puntuatuko da.

Proposetan dan puntuazinoa Kultura eta Hezkuntza Sailak ekintza puntualak esleitzeko erabilten dauen baremazinoaren arabera proposetan da. Hau da, puntu guztien %15 dira euskerearen erabilereari emoten jakozanak Kultura eta Hezkuntza Sailak bideratzen dauzan diru-laguntzetan.

Laugarrena: Hizkuntza erispideak betete aldera, egokia da kirol alkarreei diru-laguntzak emoteko Zuzendaritza batzordeak hartzen dauzan erabagietan hizkuntza erispideak bete behar dabezala gogoratzea. Udalean modu sistematikoan jakinarazoten jakez erabagietan hizkuntza erispideak diru-laguntzak hartzen dabezan alkarte, zein taldeei.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Proposamena egitea Udalaren Kirol Patronatuari, *Kirol taldeentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietako* eta *Kirol taldeentzako eta bestelako persona fisiko edota juridikoentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietako* (ekintza puntualak) balorazino erispideetan hizkuntza erispideak ezarteko modu honetan:

- *Kirol taldeentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietan Balorazino erispideak atalean, 5. artikuluan, honako hau gehitzea:*

“8.- Euskerearen erabilera”

- *Kirol taldeentzako eta bestelako persona fisiko edota juridikoentzako diru-laguntzak arautzeko oinarri berezietan (ekintza puntualak), 5. artikuluan.- Balorazio erispideak izenekoan, honako hau gehitzea:*

8.- Euskerearen erabilera, bai maila idatzian, zein ahozkoan %15 puntuatuko da.

BIGARRENA: Proposatea be, Hizkuntza erispideak betete aldera, Kirol Patronatuaren Zuzendaritza batzordeak kirol taldeei diru-laguntzak esleitzeko hartzen dauzan erabagietan hizkuntza erispideen aipamena egitea, honakoa jasota erabagietan:

“Euskerearen ordenantzeak xedatzen dauzan kultura, kirol, aisialdi alkarte, musika talde eta bestelakoei diru-laguntzak emoteko baldintzak bete behar dauzala diru-laguntzearen jasotzaileak”.

16.- JAI EGITARAUKO ARTIKULUEN HIZKUNTZA ERABILEREA.

Xedea

Jai egitarauko artikuluen hizkuntza erabilera.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2005etik aurrera hainbat proposamen helarazo deutsoz Euskera batzordeak Kultura, Gazteria eta Hezkuntza batzordeari jai egitarauko artikuluetan euskerearen presentzia areagotzeko asmoz.

Bigarrena: 2006. urtean jaietako liburua argitaratzeko kontratazinorako baldintza agirian, hizkuntza erispideak atalean honakoa ezarri zan:

- “Artikulu egile euskaldunei artikulua euskeraz egiteko eskatuko jake. Horretarako, udaleko Euskera Sailaren aholkularitza eta laguntza teknikoa izango dabe egileek”.

Hirugarrena: 2006ko 1. seihilekoan Euskera Sailak Kultura Sailagaz honakoa adostu eban:

Jaietako liburuko artikulua euskeraz eta erderaz argitaratuko dira, baina kuota desbardinagaz. Argitaratzen dan orri kopurua kontuan hartuta, lau urtean orrien %70 euskeraz argitaratzeko helburua zehaztu da, eta gainontzeko %30 gaztelaniaz, zein beste hizkuntza batean. Horretarako, urtez urte euskerearen proportzioa era honetan gehituko da: 2006an %35, 2007an %45, 2008an %59 eta 2009an %70.

Laugarrena: Euskera Sailak 2010ean proposamena egin eutson Kultura batzordeari: “orain arte izandako gabeziak ikusita, Euskera Sailaren ikuspegitik, jai egitarauko artikulua idazteko, oro har, arau batzuk zehaztu beharko litzateke; besteak beste, deialdi zabal bat egin ahal izango litzateke, idazle euskaldunak biltze aldera, eta deialdi horretan hizkuntza erispideak ezartea litzateke egokiena”.

Argudioak

Lehenengoa: Euskerearen Normalizazioaren eta Erabilerearen Sustapenerako Udal Ordenantzeak honako hau dino argitalpenen atalean:

19. Artikulua

Udal Administrazioa eta honen menpe dagozan erakundeek xedapenak euskeraz argitaratuko dira beti, baina derrigorrean, euskeraz eta erdarazko bertsioak egingo dira.

20. Artikulua

Udal honetako Aldizkariak, kartelak, eta, orokorrean, argitalpen guztiak euskeraz argitaratuko dira; hala ere, xedapenak edo ulertezinak horrela justifikatzen badau, laburpena erdaraz egingo da eta, honek ezin izango dau % 25a gaingitu. Euskal Herritik kanpoko sustapenerako zehazki zuzenduak diranean, honek euskeraz eta erdaraz egingo dira”.

Bigarrena: Euskerearen Erabilera Planak 2.3.4 atalean, administrazio irudiak eta argitalpenak atalean honakoa dino:

- “Jaietako egitarauari dagokionez: Gaztelaniaz idatzitakoaren indize altua ikusita, udal ordenantzaren onartuta dagoena betetzea proposatzen da; hau da, euskarazko 3 orriko bakarra argitaratzea gaztelaniaz. Horretarako honelako bideak jorra daitezke:

Sorkuntza lana euskeraz egiten duten herritarrei idazteko eskatzea.”

Hirugarrena: Hona hemen azken urteotako jai egitarauko artikuluen bilakaerea artikuluko kopuruaren eta orri kopuruaren arabera:

	Artikulu kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
2007. urtea	11	7(%63)	4 (%37)
	Orri kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
	67	18 (%27)	49 (%73)

	Artikulu kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
2008. urtea	8	4 (%50)	4 (%50)
	Orri kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
	56	13 (%23,2)	43 (%76,8)

	Artikulu kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
2009. urtea	8	4 (%50)	4 (%50)
	Orri kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
	56	16 (%29)	40 (%71)

	Artikulu kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
2010. urtea	6	4 (%67)	2 (%33)
	Orri kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
	43	25 (%58)	18 (%42)

	Artikulu kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
2011. urtea	14	11 (%78)	3 (%22)
	Orri kopurua	Euskeraz	Gaztelaniaz
	59	43 (%72)	16 (%28)

Laugarrena: Datuetan oinarrituta, esan geinke 2011n dezente igon dala euskerearen presentzia jai egitarauan, orri kopuruari jagokonez % 24, hain zuzen be, eta 2009rako ezarritako kuotea bete da.

Halanda ze, Euskera Sailak 2011. urtean izandako bilakaerearen inguruan, balorazino positiboa egiten dau, eta aurrerantzean be bilakaera horregaz aurrera egiten jarraitzeko bidea egitea proposetan dau.

Bosgarrena: Jai egitarauko artikulu guztietan euskerea erabili daiten, egileek euskeraz idatziko dabe artikulua, osorik ez bada, zati baten, behintzat. Baten batek horretarako gaitasunik ez badauka, Udaleko Euskera Sailak euskeratuko dau artikulua.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Jakinarazotea Kultura, Gazteria eta Hezkuntza batzordeari Euskera Sailak balorazino positiboa egiten dauela 2011ko jai egitarauan izandako bilakaerearen inguruan. Orri kopurua kontuan hartuta, %72 izan dira euskeraz argitaratutako orriak.

BIGARRENA: Gogoratzea Kultura, Gazteria eta Hezkuntza batzordeari pausuak emoten jarraitzeko, helburuak beteteko asmoz, hau da, artikuluetak euskerazko orriak gitxienez %75 izatera heltzea.

HIRUGARRENA: Artikuluak idazteko ezarritako hizkuntza-erispidea bete daiten, Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Sailak horren barri emotea egileei.

LAUGARRENA: Gogorazotea Euskera Saila Kultura, Gazteria eta Hezkuntza Sailaren bidelagun dala egiteko honetan.

17.- ALKATETZEAREN DEKRETUAK.

Alkatetzearen dekretuen barri emon da, udaleko Tokiko Gobernu Batzarra jakitun geratu daiten.

Preminatasuna guztien oneretxiagaz autortuta, eguneko gai zerrendatik kanpo, erabagi honeek hartu dira:

18.- INPRENTAKO LAN TXIKIAK

Xedea

Inprenta lan txikiak.

Aurrekariak

Lehenengoa: Azken urteetan ART PRINT enpreseagaz inprenta lan txikiak burutzeko kontratua sinatzen aritu gara. Herriko beste inprentak be lan honeetan parte hartzea eskatu dabe. Beste hiru dira udalerrian: AUE KOMUNIKAZIOAK, IRUDI KOMUNIKAZIOAK, LLONA INPRIMATEGIA.

Bigarrena: Kontratu honen ezaugarriak:

- a) Inprenta lan txiki anitzak dira urtean zehar=atomizazioa.
- b) Ezin dira aurreikusi lan kopuruak eta moetak.
- c) Ezin dira aurreikusi gastu kopuruak ezta banakako prezioetan be. Aurreko urteetako gastuak: **(2010ean 3.672,14€ eta 2011n 7.927,62€)**
- d) “Cajón Desastre” dalakoaren izakerea dauka. Edozein lan, baina baxenaren gehieneko gastua finkatzen da.
- e) Urteko gehieneko gastua da finkatzen dan gauza bakarra.
- f) Hileroko fakturazioetan burutzen da prozedura, zehaztasun osoz xedatzen dana.

Ondorioz, kontratu honetan, inprentegaz hartu-emonak finkatzen dira, udal gastu kontrolaren prozeduretara egokituz. Kontu bat edegitearen antzekoa, azken batean.

Kontratuaren helburuak:

- a) Gastu gitxiko fakturazino kopuruak gitxitzea, espedienteen tramitazinoak suposetan dauen kostuak ekidituz udalari.
- b) Gastu mugatze sistema erabiliz, kontzeptu honetako gastuaren kontrola gehitzea.
- c) Udal sailei prozedura administratiboak gitxitu eta erraztu, gastu bakotzeko espediente bat edegiten ibili beharrean, lan orduetan horrek suposetan dauen aurrezpenagaz.

Ondorioz, ez dago eragozpenik, kontratu ber-bera udalerriko inprenta guztiakaz sinatzeko, hau da: ART PRINT, LLONA, AUE eta IRUDI. Udal sailek askatasun osoa daukie lauretariko edozein aukeratzeko, beti be, udalaren beharrianak egokien asetzeko helburuagaz.

Argudioak

Lehenengoa: Kontratu guzti honeetarako dagoan kreditu kontsignazinoa 11.868,89€koa da. Lau inprentakaz egingo da kontratu bera, eta hilero aurkeztu behar daben fakturazino guztiak RC2012/447 erretentzioaren kontra onartuko dira.

Bigarrena: Zemendiaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartu dauen Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 138.3 artikuluan xedatuta dagoz hornidura kontratu txikien mugak, hau da, 18.000,00 €-rainokoak BEZ barik, zuzeneko esleipen bidez gauzatu daitekezala. Xedapen hori eta gastu honen zenbatekoa kontuan izanda, legezkoa da zuzeneko esleipena egitea.

Hirugarrena: Kontratuak xedatutako prozedura:

Kontratu bideratzeko modua:

302,00€-rainoko gastua (BEZ barik) zuzenean burutuko dabez enpresek.

Kontratuan sartzen ez diranak:

- a) **302,00€tik gorako gastuak (BEZ barik), ez dira kontratuan sartzen** eta enpresek, Erosketa Sailari aparteko aurrekontua aurkeztu beharko deutse. Enpresek ez dabe ezelako lanik burutuko Erosketa Saileko onetsia euki arte.
- b) **Era berean, Langileriaren jantzien xerigrafia lanak, eta Aita Guria Baleontziaren dendako salgaiak, kontratu honetatik kanpo geratzen dira espresuki.**

Kontratua kudeatzea:

Kontratuko lan txiki bakoetarako, entregako albarana sinatu eragin beharko da udal langile eskatzaileari, izen abizenarekin, eta udal sail eskatzailearekin agertuz. Albarana bat enprearen eskuetan geratuko da eta beste udal langileari emongo jakoa Erosketa Sailera ekarri daian.

Hilero, faktura bakar bat aurkeztuko da kontratu barruko lan txiki guztiakaz.

Laugarrena: Esleipenduneri jakinarazotea udalagaz izango dabezan ahozko eta idatzizko hartu-emonak euskeraz izango dirala eta fakturarik edo bestelako idatzirik aurkeztu behar dabenean euskeraz aurkeztu beharko dabezala.

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, honako hau erabagi dau, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrak:

BAKARRA: ART PRINT, LLONA INPRIMATEGIA, AUE KOMUNIKAZIOAK, IRUDI KOMUNIKAZIOAK herriko enpresakaz kontratua sinatzea, gastuen kontua edegi daian udalagaz Kontu honek hileroko fakturatuko dira, eranskinean xedatu dan moduan.

Hornidura: Inprenta lan txikiak, fotokopia, enkuadernaketa sinpleak, erlazionatutako hornidura txikiak.

Kontratu epea: 2012ko abenduaren 31ra arte.

Ordaintzeko epea: Ohikoa

Gastu osoa: 11.868,89€ BEZ barru dala (danantzat).

Garraio kosturik: Barruan.

19.- ESKARIAK ETA ITAUNAK.

Batzordekideak ez dabe ezelango eskari ez itaunik aurkeztu.

Eta aztertzeko gai gehiago barik, lehendakari andreak amaitutzat emon dau batzarra goiburukoan aitatutako ordu, egun eta leku berean, eta eztabaidatutakoa eta erabagitakoa jasota geratu daiten, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dodanak, horren fede emoten dot, lehendakariaren oneretxiagaz. Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazinoko(e)tik(e)ra arteko zenbakidun paperean jaso da.